

Sonia González

LABEKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

Geuk daukagu giltza

Laissez faire, laissez passer” esan izan digute behin eta berriro: “Utzi egiten, utzi pasatzen, ez mugarik ipini merkatuari, berak jakingo du berez erregulatzen”. Eta bai, gordin-gordin ikusten ari gara premisa honen emaitza. “Aidez! Aidez! Sauvez l'entreprise!” izatera pasatu da egun batetik bestera: “Ez utzi hainbeste diru ez irabazten, lagundu gure akziodunei lehen beste banatzen”. Eta jakina, instituzioak bata bestearen atzean arrapaladan joan dira laguntza oihu penagarri hau entzunda.

Krisia gora eta krisia behera, baina denok barku berean gaudela argi utzi digute hasieratik: langileok eta kapitala, kapitala eta langileok, nahiz eta oraingo honetan arratoiak ez izan euren burua kareletik behera bota dutenak.

Edozelan, asko gara gorpil honetara kateaturik jarraitu nahi ez dugunok, eta horrelaxe adierazi genuen greba orokorrean. Lehen momentutik, mota guztietako manipulazio, intoxikazio eta faltsukeria erabili izan dituzte helburu bakar batekin: langileen mobilizazioa desprestigiatu eta indargabetu. Patronalarengandik espero zen –botere ekonomikoaren eta langile-riaren arteko gatazka dugu–, instituzio ezberdinetatik ere bai –kolore batekoak edo besteak politikari neoliberalak eta patronalarekiko aliantzak gidatzen ditu eta–, negar-



INIGO AZKONA

garriena zenbait sindikaturen jokabidea izan da. Bakoitzak jakingo du, baina.

Porrota izan dela esaten duenak oso helburu zehatza dauka: langileen eta herriaren protestak isilarazi, desmobilizatu, geldiarazi... Negozio ederra daukate antolatuta eta ez daude prest atzera egiteko. Baina guk ere argi utzi dugu ez gaudela prest erreforma eta eraso berriak itxaroten gelditzeko ezta botere ekonomikoaren jokoari men egiteko ere. Eredu ekonomiko eta sozial justua nahi eta behar duen herria gara eta ozen esan diegu.

Langileok indarberriturik atera gara. Gure posizioak hobetu ditugu patronalari boterea borrokatzeko, politika ekonomiko eta sozialak baldintzatzeko, benetako sindikalismoa egiteko eta Euskal Herriak behar eta nahi dituen sakoneko aldaketa horiek lortzeko. “Zarata ateratzen” krisiaren aurrean ofentsibak egitera egin dugu jauzi eta hau benetan da inportantea.

Bide horretatik jarraitu beharra daukagu. Gehiengo sozialak dauka indarra, nahiz eta askotan ez konturatu; geuk daukagu giltza, baina borrokatzen ez bagara, nora arte dira kapazak atzerapausoz atzerapauso gu erodateko? Akaso uste duzue punturen batean errukitu eta “nahikoa da” esango dutela? Sekula ez dute nahiko irabazten, sekula ez dute nahiko aprobetxatzen! ■

« Guk argi utzi dugu ez gaudela prest erreforma eta eraso berriak itxaroten gelditzeko ezta botere ekonomikoaren jokoari men egiteko ere »

HIRUKO TXIRIAN

Joxemari Ostolaza



Donostiako antzokia bisitatzeko aukera izan genuen joan zeneko larun-

batean, etxe honetakoek gomitatuta. Urte andana joan da azken aldikoz bertan egon ginenetik. Inoiz ez bezalako poza hartu genuen bere inguruari so eginez, orain artean ikusten ez genion edertasunaz gozatu baikin. Aurreko seigarren lerroan jarrita, eszenatokia erraldoia iruditu zitzaigun. Estitxuren agindutara Xabi Paya, Sustrai, Andoni, Uxue, Iñaki Murua eta Amets aritu zitzaizkigun bat-batean bertotan, hauenak tartekaturik Eñaut Agirrek astekarian argitaratutako garai ezberdinetako bertsoak kantatu zituela-

Victoria Eugenia

rik Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak piano eta gitarra akustikoz jantziarik. Saioak osoro maila erakargarri

ria mantendu bazuen ere, izan zituen une gorenak, Uztapide zenaren ahotsa entzun eta Ametsek –Uztapidek utzi doinu eta tonalitate berean bere lehen bertsoa kantatu zuenean– eta Andonik bi palku ertzetik ofizioan egin zutenean eta Xabik eta Andonik jendearen artera jaitsiz burutu zutena. Urumea, bide beretik ur berriz. Aukeran, Eñautek kantatutakoak ikusteko aukera eman izan bali-gute parera jo izango zuten, musikak jan ahotsa bestelako ahoskatzea eskatzen baitu. Merezi du holako forma-toan aritzeak, bertsoak hegazti urrun joaten baitira. ■